



afektuak



gorputza




sentimenduak



desioak



emozioak...



harremanak
berdintasunean



emakumeen nazioarteko eguna

AFEKTUAK, GORPUTZA, SENTIMENDUAK, DESIOAK, EMOZIOAK,... BERDINTASUNEZKO HARREMANETAN.

Pertsona guztiak sexudunak gara, gorputz sexuatu dugu eta honen bidez pentsatu, ulertu, adierazi, komunikatu gozatu, sentitu eta sentiarazten dugu.

Sexualitatea, hitzekin eta gorputzaren bost zentzuekin bakoitzak espresatu, komunikatu, sentitu, intimatu, plazera eman eta jasotzeko modua da. Sexualitatea, beraz, pertsonaren dimentsio bat baino gehiago da: garena da. Horregatik, sexualitatearen garapen osasuntsu eta atsegingarria laguntzea, pertsonaren garapena osotasunean laguntzea da.

Heziketa afektibo sexuala beraz, umeen formazio integrala lortzeko alderdi garrantzitsua da.

Ukitu, plazera eman eta intimatzekeo behar fisiko eta afektiboek, jaiotzatik heriotzaraino laguntzen gaituzte.

Baina pertsonok sentisibilitate desberdinak ditugu eta ez zaizkigu afektu adierazpen berdinak gustatzen, horregatik da beharrezkoa hainbat gaitasun lortzea: besteak eta norbere burua entzutea, zer nahi dugun eta zer ez dugun nahi, zer gustatzen zaigun eta zer ez zaigun gustatzen jakitea, egin eta disfrutatzea nahi eta sentitzen dugun bezala, norberari eta beste inori minik eman gabe...

Ume, nerabe eta gazteek objetiboki eta osotasunean heziak izateko eskubidea dute maila guztietan (biologiko, psikiko eta soziala), sexualitatea komunikazio, osasun, plazer eta afektibitate iturri bezala ulertuz.

Emakumeak eta gizonak berdintasunean eta diskriminaziorik gabe biziko garen gizartea lortu nahi badugu eta harreman komunikatzaile, atsegin, berdintasunezko, arduratsu eta askeak lortu nahi baditugu, ikasleriari kalitatezko heziketa afektibo sexuala eskaini beharko dugu; honen faltak disfuntzio sexualetan eragina izan ez ezik, berdintasunean oinarrituriko gizartearen eraikuntzan behar diren oinarritzko aldaketa sozialak ematea eragotziko baitu.

Heziketa sexualak, esan bezala, pertsona gisa haztera laguntzen gaitu, baina alderdi biologikoan zentratzen bagara soilik, pertsonalitate osasuntsua eraikitzekeo aukerak eta kasu askotan aurreiritzi eta estereotipo sexistez beteta dauden ideiak aldatzeko aukerak ukatuko ditugu.

Horregatik, eta azaroaren 25ean egin genuen tratu onen kanpainari jarraipena eman nahian, aurtien martxoaren 8rako prestatu dugun unitate didaktikoa heziketa afektibo sexualari buruzkoa izango da. STEE-EILASetik deia egiten dizuegu gai hau landu dezazuen zuen haurreskoletan besteak beste, gorputza, harremanak eta afektuak, indarkeriarik gabe eta plazerez bizitzeko helburuarekin.

Beti bezala ondorengo jarduera hauek adibideak besterik ez dira; bukaerako bibliografian, zuen haurreskoletan, interneten...askoz ere gehiago aurkituko dituzue.



HELBURU OROKORRAK

- Pertsonen arteko harremanak, komunikazioa, afektibitatea eta plazera izateko modu bezala ulertzea sexualitatea.
- Berdintasunean, errespetuan eta arduran oinarritutako elkarbizitzako oinarritzko arau batzuk ezagutu eta erabiltzea.
- Genero estereotiporik gabeko afektibitatea bultzatzea.

KARTELAREKIN LANTZEKO JARDUERA

Helburuak:

- Afektuek, emozioek, gorputzak, sentimenduek... duten garrantziaz jabetzea.
- Berdintasunezko harremanen garrantziaz hausnartzea.

Materiala: EILASen kartela, arbela.

Metodología:

1. Irakasleak EILASen kartela arbelean jarriko du.
2. Banan-banan irudiak aztertuko dituzte: zertan ari diren, zer sentituko duten (pozik, triste, nekatuta...),...
3. Aurretik atera diren sentimenduak izateko pertsonaia bakoitzak ze arrazoi duen komentatu.



GORPUTZA

HELBURUAK

- Norbere gorputza ezagutzea.
- Beraien arteko desberdintasun fisikoez jabetzea.
- Gorputza komunikazio, sentsazio, plazer eta afektu iturrizat onartzea.
- Genero diskriminaziorik gabeko sexu identitatea garatzea.

1. JARDUERA : “NINAIZ”

- Ispiluan, argazkietan...nolakoak diren behatu eta beraien gorputzaren deskripzioa egin ahoz hezitzailearen laguntzaz.
- Bikoteka, kidea deskribatu. Gero, bestearengandik zer gustatzen zaien gehien esan.

2. JARDUERA: “DESBERDINAK GARA”

- Aldizkariak, komikiak...ekarri gelara eta pertsonen argazkiak moztu. Pertsona altuak, txikiak, argala, lodiak, ile gorriak, arraza desberdinetakoak...
- Moztutako argazkiekin horma-irudi bat egin.
- Ateratakoari buruzko elkarrizketa bultzatu, pertsona guztiak desberdinak gara baina horrek ez du esan nahi batzuk besteak baino hobeak direnik.

3. JARDUERA: GORPUTZ ESKEMA

- Gelako espazio guztia okupatuz, gorputz eskema atalez atal mugitu: lehengo eskuko hatzak, gero eskumuturra, besoak, sorbaldak, bizkarra, aldaka, aurpegiko muskuluak, hankak...horrela gorputz osoa mugimenduan jarri arte. Mugimendu hauek metatu egingo dira.
- Gorputzaren kontzientzia hartu ondoren, honekin egin ditzakegun gauzak zerrendatu. Gorputzean sentitu ditzakegunak ere zerrendatu: gosea, pixalea, plazera, mina...
- Gorputz eskema gaitzat duten kantuak abestu: gorputzaren soinua, korro korroan, korro txirinbolo...

4. JARDUERA: MASAJE TXOKOA

Helburuak: Berdinen arteko kontaktua eta ongizatea bultzatzea.

Norbera lasaitu eta erlaxatzen laguntzeko estrategiak ezagutzea.

Gelan espazio edo txoko bat egingo da umeak era autonomoan behar edo nahi dutenean joango direna.

Espazio honetako material bakoitza talde handian aurkeztuko da. Hasieran txandak egingo dira ikasleak txokora ohitu daitezen gerora autonomiaz joan ahal izateko.

Masajeak emateko bakarrik zein bikoteka joan daitezke. Espazio honetako zorian alfonbra eta kuxinak jarri daitezke erosoak izateko.

Materialak:

- Kuxinak, panpinak, pilota leunak, lumak, arropa atalak...Material bakoitza kutxa batean gordeko da.
- Masaje errazen irudiak.



HARREMANAK

HELBURUAK

- Partaide diren talde sozialetako (familia, berdinen taldea...) kide aktibo eta arduratsu bezala identifikatzea beraien burua.
- Talde hauetan sortzen diren lotura afektiboak positiboki baloratzea.
- Harremanak dituzten pertsonekin norbere interesak eta sentimenduak adieraztearen garrantziaz jabetzea.

1. JARDUERA : ZORION, KRITIKA ETA PROPOSAMENEN TAULA

Hiru zutabe dituen taula bat jarriko dugu, lehengoa zoriontzeko, bigarrena kritikatzeko eta hirugarrena proposatzeko. Haur Hezkuntzan aurpegiak marrazkiak jarri ditzakegu (atsegina, desatsegina).

Gelako umeek, irakaslearen laguntzaz, idatziz jasoko dituzte gelan eta taldean ondo sentiarazten dituzten egoerak eta dagokion zutabearen jarriko dituzte. Egoera bakoitzaren ondoan ikaslearen izena jarriko da. Berdin egingo da egoera desatsegin eta gatazkak konpontzeko proposamenekin.

Noiz egin: Asanbladan egunero egin dezakegu; zorionekin hasiko gara.

2. JARDUERA: IRUDIEN IRAKURKETA

- Ikasleekin landu nahi diren egoeren irudiak (argazkiak, marrazkiak...) eraman gelara: afektua, gatazka, elkarlana...
- Banan irudiak aztertu: irudian ikusten dena gustatzen zaien ala ez, horrelako egoerarik ikusten ote duten, zer egin egoera desberdinen aurrean...

Irudiak horma-irudi batean itsatsi eta ondorioak idatzi aldamenean.



3. JARDUERA : JOLAS SAIOAK

Jolasak egin ondoren saioaren inguruko elkar jartzea egin: zer den gehien/gutxien gustatu zaiena, nola sentitu diren, zeinekin izan duten harremana...

Kooperazio jolasak

Korapiloa

Umeak borobilean, begiak itxita eta besoak goian, erdialderantz joango dira. Han, esku bakoitzarekin beste esku bat hartuko dute eta korapiloa sortuko da. Ume guztiak elkarri lotuta daudenean eskuak askatu gabe korapiloa askatzen saiatuko dira. Hezitzailea borobilaren kanpoan egongo da borobila askatzeko laguntza emanez.

Besarkada musikal kooperatiboak

Ikasleak gelan dantzatuko dute musikaren erritmoan. Musika geratzean pertsona bakoitzak beste bat besarkatuko du. Musika berriz hastean dantzara bueltatuko dira. Musika hasten den hurrengoan besarkada hiruren artekoa izango da. Besarkada gero eta handiagoa eginez joango da gela osoa besarkada handi batean bildu arte.

Auto-estimua jolasak

Protagonistaren jolasa

Umeak txandaka protagonistak izango dira bi edo hiru minutuz, erdian jarritz. Erdian dagoen bitartean gainontzeko taldekideek berari buruzko ezaugarri positibo bat esango diote. Ezaugarri horiek denak desberdinak izaten saiatuko gara. Horrela, taldekide guztiak erditik pasa arte. Bukaeran talde bakoitzean jolasaren balorazioa egingo da: zer da gehien/gutxien gustatu zaizuen,...

Tortillari buelta eman

Bikoteka, kide bat lurrean etzango da, bere bikotea honi buelta ematen saiatuko da eta lurrean dagoenak hori ekin behar du; Horretarako lagungarria izan daiteke hanka eta besoak zabaltea...Gero paperak aldatuko dira. Beti ere kontutan izan behar da ezin dela minik eman.



BIBLIOGRAFIA

- "La educacion sexual en la primera infancia" Ministerio de educacion, cultura deporte.
www.migualdad.es/MUJER/publicaciones/docs/17Edusex.pdf
- "Educacion Afectivo-sexual en la educacion infantil" Junta de Andalucia
www.juntadeandalucia.es/averroes/publicaciones/1afectivo_sexual.php3
- " Sentir y pensar" Adimen emozionaleko programa. sm argitaletxea.
web:
www.infantil.profes.net/inteligencia.asp
- "Kontu Txikiak" .Sortzen IKasbatuaz

IRAKASLEENTZAKO WEB ORRIAK

- www.educarenigualdad.org
- Zubiak eraikitzen hezkidetzeta taldea.
Bloga: <http://zubiakeraikitzen.blogspot.com>
- www.stee-eilas.org



HAR EZAZU PARTE GUREKIN, AFILIA ZAI TEZ!!

Indarrak biltzeko, gure eskubideak defendatzeko, gure ahotsa entzunarazteko, informazioa izateko, aholkularitza sindikal eta legala izateko.

Oso erraza da, har ezazu nahi duzun bidea:

- Fitxa hau bete eta egoitzara bidali.
- STEE-EILASen webgunean sartu eta bertan dagoen fitxa bete eta e-mailez bidali.
- Telefonoz deitu eta hemen agertzen diren datuak eman.

AFILIAZIO FITXA:

I zen-abizenak _____

NAN _____ Helbidea _____

P.K. _____ Herria _____ Herrialdea _____

Telefonoa(k) _____

e-maila _____

Haurreskola _____

Jardun mota: osoa ? erdia ?

Kontrato mota: EEPra arte? ordezkapena?

Banku datuak:

Banketxe kodea _____ Sukurtsala _____ KD _____

Kontu zenbakia _____

Sinadura:

